

## Topiko tristeak

Edward Said palestinarrak Karl Marxen aipu batekin hasi zuen bere *Orientalismoa* saiakera: “Ezin dute euren burua irudikatu, irudikatuak izan behar dute”. Ekialdea esaten diogun lurretako jendeak nola irudikatu diren aztertzeko baliatu zuen aipua Saidek, baina beste hainbeste esan liteke euskaldunei buruz ere: ezin dugu geure burua irudikatu, irudikatuak izan behar dugu.

Izan irudia ederrago ala zatarrago, izan zintzoago ala gaiztoago, bestek eman diguten irudia (izan) gara. Hala, topikoak eta klitxeak gizenduz joan dira, euskaldunaren ezaugarri berezkoak bilakatzeraino. Langilea, hitzekoa, serioa, itxia; behin eta berriz esan eta idatzi diren adjektiboak dira. Baina, nolakoa da euskalduna? Ba ote dago ba euskaldunaren multiplo komun txikiena ateratzerik? Euskaraduna izateak, bihurtzen ote du bat langile, hitzeko, serio, edo itxia?

Eta hala ere, behin honaino iritsita, ia gutxienekoa da topiko tristeen zama gainean eraman beharra. Aferarik gordinena bestea da: ezin dugu geure burua irudikatu. Edo bestela esanda, eta Spivaken hitzak parafraseatuz, hauxe da auzia: hitz egin dezake euskaldunak? Eta erantzuna baiezkoa izatera, zeinentzat hitz egiten du?

Galdera hauei beste hainbat galdera gehitzeko, lau liburu irakurriko ditugu:

1. Tropiko tristeak. Claude Levi-Strauss.
  2. Lotsaizuna. JM Coetzee
  3. Subordinazioaren kontra. Imanol Galfarsoro
  4. Autokarabana. Fermin Etxegoien
- Euskalduna naiz, eta arraro nago.